



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Ana Madariaga hitzaldiak – 2 de Mayo de 2013
Inauguración exposición Colección Arte Juntas Generales de Bizkaia

Arratsaldeon!!! Nire ongi etorria danoi.

Erakusketa barria inauguratzen dogu gaur Bizkaiko Batzar Nagusien erakusketa-areto honetan. Gure erakundearen beraren arte-bildumako artelanak dira oraingoan. Bilduma hori orain 30 urte hasi zan atontzen, artista gazteen lanak erosita. Artista gazte ziran hareek ospe haundiko artista bilakatu dira edo Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Eder Fakultateko irakasle aditu bihurtu dira.

Gure asmoa da urtero egitea holako erakusketaren bat. Oraingoa **Xabier Sáenz de Gorbearen** (Gure Arte saria 2012) ardurapean atondu da, Enkarterritako Museoko zuzendari dan **Javier Barriok** koordinatuta.

Batzar Nagusien izenean, eskerrak emon gura deusuedaz erakusketa honetarako lagundu deuskuzuen guztioi.

“Gernikatik Gure Arteara. Imaginario berriak suntsitu eta eraikitzea” Erakusketearen abiapuntu da Gernikako bonbardaketeak eragindako mina, Bogotako Gernika plazarako **Jorge Oteizak** egindako brontze bategaz. **Erakusketearen ardatza Gernikaren suntsiketean da. Jesús Mari Lazkanoren eta Mari Puri Herreroen** lanak be Gerniak daukan esangura sinbolikora hurreratzen dira.

Gure artetik joan jakun **Gabriel Ramos Urangaren** oleo bat be badago erakusketan. Imaginario barrien eregiketean 80 hamarkadako beste sortzaile barri batzuren eskutik be ikusi geinke: **Daniel Tamayo, Mikel Diez Alaba, Juan Luis Goenaga, Iñaki de la Fuente** eta **Alfonso Gortazar**. Hogeita hamar urte joan dira orduan Batzar Nagusietako Lehendakaria zan gure Anton Aurre maiteak arte-bilduma hau martxan jarteko intuizinoa izan ebanetik, osteragoko agintaldietan Aitor Esteban aberasten joan zan bilduma hain zuzen. Orduan artista hasibarrien alde egin zan apostu. Eta gaur egun be horixe egiten dogu, Arte Eder Fakultateko Pintura Sailaren lankidetzaren bitartez, han ikasten dagozanen erakusketak antolatuz.

Artean eta kulturaren egindako orduko inbertsinoak balio haundia hartu dau urteakaz. Orain, bizkaitarrei erakutsi gura deutsegu gure bilduma. Anton Aurre, gaur egun osasunez makaltxu dabilena, Gernikako bonbardaketearen lekukoetako bat izan zan, Condor Legioaren hegazkinen ametralladoreen erasoak jasan zituan-eta Antonek Axangizeko maldetan.

Egunokaz jakin dogu 1937ko apirilaren 26 haretan neskatotxu bat jaio zala Gernikan, Maite Elorza. Suntsipen hartatik jaio ziran be, Gernikako Arbolearen inguruan, Bakearen eta Askatasunaren ikur barriak, imaginario barriak, erakusketa honek hobeto ulertzen lagunduko deuskuzanak.

Eskerrik asko!



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Arratsaldeon!!! Bienvenidos y bienvenidas.

Inauguramos hoy una nueva exposición en esta sala de las Juntas Generales de Bizkaia. Son obras de la propia colección de nuestra institución, Una colección que se inició hace tres décadas adquiriendo obra de artistas jóvenes que ahora son reconocidas firmas o prestigiosos profesores en la facultad de Bellas Artes de la UPV-EHU.

Nuestra idea es hacer una exposición de estas características cada año. Esta muestra está comisariada por **Xabier Sáenz de Gorbea** (Premio Gure Artea 2012) y ha contado con la coordinación del Museo de Encartaciones y su director **Javier Barrio**.

En nombre de Juntas Generales, quiero dar las gracias a todos los que han colaborado en la organización de esta muestra

“De Gernika a Gure Artea. Destrucción y construcción de nuevos imaginarios” parte del dolor producido por el bombardeo de Gernika con un bronce de **Jorge Oteiza** realizado para la Plaza Gernika de Bogota. La muestra toma como punto de partida la destrucción de Gernika. Obras de **Jesús Mari Lazkano** y de **Mari Puri Herrero** se acercan también hasta el simbólico significado de Gernika.

La exposición incluye también un óleo del ya desaparecido **Gabriel Ramos Uranga**. La construcción de nuevos imaginarios nos la aportan también otros jóvenes creadores de los años ochenta: **Daniel Tamayo, Mikel Diez Alaba, Juan Luis Goenaga, Iñaki de la Fuente** y **Alfonso Gortazar**.

Han pasado más de treinta años desde que el entonces Presidente de Juntas Generales, nuestro querido **Anton Aurre**, tuvo la intuición de poner en marcha una colección de arte para el Parlamento de Bizkaia, que Aitor Esteban enriqueció en sus posteriores mandatos. Entonces se apostó por artistas incipientes. Como hoy lo hacemos, colaborando con el Departamento de Pintura de la Facultad de Bellas Artes y la organización de muestras de estudiantes en formación.

Aquella inversión en arte y cultura se ha revalorizado mucho con el paso de los años. Ahora queremos dar a conocer nuestra colección a la ciudadanía vizcaína. Anton Aurre, aunque delicado de salud, es hoy uno de los supervivientes y testigo de aquel bombardeo de Gernika. Anton sufrió los ametrallamientos de los aviones de la Legión Condor en las lomas de la cercana Axangiz.

Estos días hemos conocido que en medio de aquella destrucción el 26 de Abril de 1937 nació en Gernika una niña, Maite Elorza. De aquella destrucción nacieron, en el entorno del Árbol de Gernika, también nuevos símbolos de Paz y Libertad, nuevos imaginarios, que esta exposición nos ayuda a comprender mejor.

Eskerrik asko!